



LIBURUA

Laugarren protagonista da Xala



XALA

CYNTHIA OZICK

ITZULTZAILEA: KORO NAVARRO

PASAZAITE, 2017

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Bi testu barnebiltzen dituen liburua da *Xala*. Lehenengoak liburuari izenburua ematen dio eta 1980an argitaratu zen lehenengoz. Sei orrialdetan kontaktzen digu preso juduen hiru eguneko martxa. Eta ezaguna zaigun istorioa baldin bada ere, muga etiko eta humano guztiak gainditzen dituen egoera baten salaketa egiten du tonu gordin eta zuzena erabiliz. Kontakizun bikaina da, izan ere, indar handiko elementuak aukeratzen jakin du autoreak eta orrialde gutxitan inpaktu handia sortzeko gaitasuna dutenak. Martxa horren parte izango dira Rosa, bere iloba Stella eta xal batean batuta daraman hilabete gutxiko alaba, Magda. Pentsa genezake protagonistak hiru direla. Baina xalak haurra elikatze duen gaitasunak, babesteko

eta berotzeko funtzioak eta psikologikoki –batez ere Rosari, baina guztiei– ematen dien segurtasunak laugarren protagonista egiten du.

Hilekoa ere galdu dute gosearen, nekearen, logurearen eta *shock* emozionalaren ondorioz. Izugarrikeria ilustratze-ko adibide eta pasarte garbi bat.

Bigarren testua nobela motz bat da. 1983an argitaratu bazen ere, *Xala* kontakizunaren jarraipen gisa irakur dezakegu. Rosa Miamin dago gerra amaitu zenetik eta urte batzuen ondoren. Xala gordea du oraindik eta ilobarekin eta alabarekin eskutitz bidez komunikatzen da. Hemen ere orrialde gutxitan kontu sakon askoren inguruan hausnartzeko aukera irekitzen du: ama hizkuntza, heriotza-esparrua bezalako esperientzia

bat bizitzeak uzten duen ondorio psikologikoa, (sa)mina, prekaritatea, noraeza, arrazismoa, patriarkatua... Pertsonaien harremanen bitartez harilkatuko ditu gai horiek guztiak Cynthia Ozick-ek.

1989an bi testuak elkarrekin argitaratu zituzten bezala argitaratu zituen Pasazaitek 2017an. Koro Navarro Etxeberriaren lumatik pasatako itzulpena da. Sarri irakurri dut itzultzea berri-daztea dela, eta Koro Navarrori ere zorionak, itzulpen zoragarria da-eta *Xala*. Cynthia Ozicken lana euskarara itzultzen zen lehenengo aldia zen, eta momentuz bakarra. Kritiken hemerrotekan bi kritika baino ez ditu. Honekin hirugarrena. Txikia eta laburra izanagatik irakurketa intentsu eta benetan aberasgarria. ●